

URRINEKO INCHAURRAK.**E S A N G I A .¹**

Sarri agertutен dau goiš ona zerauk
 Egun argi bat izan dagian munduak;
 Lorarik lora egan micheletak² pozik
 Ibilten dira arro, chukun ta politik;
 Ume koskonduchuak,³ zoraturik legez,
 Jarraika duaz urrin artu albadabez,

Daukazelako grana ta urrezko eguak,
 Balira legez gauza tint baliotsuak;
 Baña artu orduko euren eskuetan
 Auts biurtutен jakez ego ederrok bertan.
 Orra umien pozak zertara datozen
 Gauz eder baten jaube ustez egin arren

Eguzki argiagaz bardin landa baten
 Gauzacho bat dizdizka urrin bada ikusten
 Lora guztiak baño au da ederrago:
 Bertara juan eta ¿baña an zer dago?
 Ez lora pichi eder, ez zoragarririk,
 Ispilli zaticho bat ausia bakarrik.

Gauza andia dala pentsau eragiten
 Izar bustandun bere sarri da agertutен;
 Askok sinistu oi dau dala miraria
 Ta gerra andi baten señale garbia;
 Orrelako gauzarik ezer izan ez da
 Jende guztia larri ipinten dau bada.

Urietan piestak dirala ederrak
 Esaten dabe beti urtero paperak;
 Bertara juan eta, jo zenbat alditan,
 Pentsetau zan lakorik an ez da topetan!
 Diru asko gastau ta damututa echera
 Etorri oi da sarri juana ikustera.

(1) Proverbio.

(2) *Micheletak*, las mariposas.(3) *Koskonduchuak*, sinónimo de *aziak*, *nausiak*.

Arrantzalle bat baldin bada azartua
 Asko artzeko ustez sarri urrin dua,
 Gañera kostan bada gabetan farola
 Illunagaitik bere ez deutsa ardura,
 Eskerrak emon beyoz alan farol oni
 Utsik izanda bere oi dalako etorri.

Baita askotan dua urrin egaztia
 Largaurik bere jayo ta bizi tokia,
 Ichirik abia ain lumatsu biguna
 Galdu baleu legeche buruko zentzuna,
 Erbestetuagaitik damurik baperez
 Doialako obeto bizitera ustez.

Nik bere entzun eta urriñeko gauzak,
 Zoro-zororik egin nituzan ametsak,
 Egan ez arren ontziz irago ichasua,
 Baña emen ez topau uste zan lekua,
 Sinisten nebalako, neke asko baga
 Dirua Ameriketan irabasten zala. •

Artu dot gisaso onek engaño osua,
 Zoratzen ninduana zan ispillacua,
 Ta neure farolaren erraño barrutik
 Nago urriñegira emen etorririk,
 Baña banintzateke ichas egaztia
 Laster artuko neuke nik Euskel-erria.

¡O, neure jayoterri ta eche kutuna!
 Orche dot nik abia apatz ta biguna;
 Baitabere or daukat kostako farola,
 Zein dodan biotzeko amacho laztana;
 Beraren argipetik ez baneu nik urten
 Ez nintzan aurkituko ume zurtz gaur emen.

Baña izan naz beti ni chori-burua,
 Alperrik orain daukat miñ eta damua:
 Inok gura ez padau nik legez erratu
 Esaera on zarrak, gaztiak, sinistu:
 Urriñeko inchaurrak ost andiak dabez,
 Bertara juan eta billatu baperez.